**ANUARIO DE EUSKO-FOLKLORE**

Fundación
JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN
Fundazioa

Tomo 38. 1992-93. Págs. 7-8

# PROLOGO - HITZAURREA

Ander Manterola Aldekoa

El Anuario de Eusko-Folklore, por voluntad de quien fue su fundador, y director hasta su muerte, Don José Miguel de Barandiarán (1889-1991) ha concedido siempre en sus páginas «mayor amplitud al material recogido mediante investigación de campo, que a los párrafos doctrinales».

En la nueva andadura que nos corresponde recorrer trataremos de ser fieles a la orientación que ha mantenido este Anuario desde sus orígenes.

Los materiales publicados en sus primeros volúmenes fueron el resultado de las campañas de investigación de campo planificadas anualmente por el Laboratorio de Etnología que dirigía Barandiarán. Así se abordaron sucesivamente temas tales como: Fiestas populares (1922), Creencias y ritos funerarios (1923), La religiosidad del pueblo (1924), Establecimientos humanos (1925-1929).

Aquellos trabajos han merecido recientemente esta elogiosa valoración por parte de W. A. Christian, historiador y antropólogo americano de reconocida autoridad: «Las encuestas del Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore de los años veinte son ahora una fuente imprescindible para historiadores y antropólogos».

Una valoración semejante merecerán sin duda en el futuro las memorias etnográficas que en años sucesivos han ido apareciendo en estas páginas.

A finales de la década de los años sesenta señalaba Don José Miguel que era tarea urgente registrar las manifestaciones de la vida tradicional antes de que éstas se desfigurasen o fueran eliminadas por los nuevos modos de existencia. Proponía para ello la elaboración de monografías fruto de investigaciones etnográficas llevadas a cabo en todas las comarcas del territorio de Vasconia; él mismo había publicado con anterioridad varias monografías que describían sistemáticamente el complejo cultural de poblaciones situadas en el País Vasco Continental. Para llevar adelante esta labor creó los grupos de investigación etnográfica *Etniker*.

«Para poner en marcha estas ideas y propósitos organizamos en una de nuestras regiones un cuerpo de colaboradores como complemento de la Cátedra de Etnología Vasca que funciona desde el año 1963 en la Universidad de Navarra. Pronto se va a extender la experiencia a otras regiones. Deseamos que en pocos años se llegue a tener registrado lo más importante de la vida tradicional de

Eusko-Folklore Urtekariak, sortzaile eta, hil arte, zuzendari izan zuen On Joxemiel Barandiaran (1889-1991) jaunaren guraria betez, bere orrialdeetan beti eman dio «leku zabalagoa kanpo-ikerlanez bildutako materialeari, dotrinari baino».

Aurrerantzean urratuko dugun bidean ere Urtekariak jatorritik gorde izan duen agindu horri eutsi beharko diogu.

Urtekariaren lehen aleetan kaleratutako lanak Barandiaranen zuzendaritzapean lanean ziharduen Etnologi Laborategiak urtero egitamututako kanpo-ikerlanen frutu ziren. Horrelaxe argitaratu ziren, bata bestearen ondoren, hurrengo gai hauek: herrietako ospakizunak (1922), sineskeriak eta heriotz errituak (1923), herritarren erlijiotasuna (1924), giza-kokaguneak (1925-1929).

Orduan egindako lan horiek, mundu zabalean prestijio handienetakoa duen W.A. Christian historialari eta antropologo amerikarraren aldetik, honako goraipamen hau merezi izan dute oraintsu: «Eusko-Folklore Elkartearen Urtekarian hogeiko hamarkadako urteetako inkestak historialari eta antropologoentzat bazterrezineko iturri dira gaur egun».

Honelako goraipamena izango dute dudarik gabe etorkizunean orri hauetan hurrengo urteetan agertuko ziren etnografi txostenek ere.

Hirurogeiko hamarkadaren azken aldian, bizimodu tradizionalaren manifestazioak desitxuratu edo bizimodu berriaren eraginez desagertu aurretik, haiek batzea premiazkoa zela azpimarratu zuen On Joxemielek. Horretarako Euskal Herriko lurraldeetako eskualde guztietan burututako ikerketa etnografikoen ondorioz lan monografikoak eratzea proposatu zuen; Barandiaranek berak aurretik argitaratuak zituen Hego Euskal Herriko herrietako kultur sarea erakusten zuten monografia batzuk. Lan honi jarraipena emateko Etniker izeneko lantaldeak sortu zituen, ikerketa etnografikoez ardura zitezen.

«Ideia eta asmo hauei hasiera emateko, gure lurraldeetako batean laguntzaile talde bat sortu genuen, Nafarroako Unibertsitatean 1963tik aurrera lanean ari den Euskal Etnologiazko Katedraren osagarri modura. Laister zabalduko da esperientzia hau beste lurralde batzuetara. Gure nahia litzateke urte gutxira gure herriko ohizko bizimoduaren alderik garrantzitsuenak eta honen egungo faseak bildurik

nuestro pueblo y las fases de su proceso contemporáneo. Los Anuarios de E.-F. de los años venideros deberán ser el reflejo de este movimiento. Así lo esperamos».[1]

El desarrollo ulterior de este renovado proyecto etnográfico de Barandiarán así como las actividades que han llevado a cabo los Grupos Etniker creados por él están descritos en el trabajo que, en este mismo volumen, presenta Gurutzi Arregi con el título *Atlas Etnográfico de Vasconia*.

Durante el año 1991 los Grupos Etniker Euskalerria abordaron conjuntamente la investigación sobre la muerte dentro del tema de los «Ritos de pasaje». Esta encuesta de campo se llevó a cabo en 76 localidades de Vasconia siguiendo los enunciados del cuestionario general que con el título *Guía para una encuesta etnográfica* redactó y publicó Barandiarán para el proyecto Etniker.

Las páginas de este volumen se abren con cuatro memorias etnográficas fruto de la aplicación de esta encuesta en otras tantas localidades y comarcas del área investigada. José Antonio González y Salazar aporta datos sobre la comarca de Bernedo situada en la Montaña alavesa; Miguel Sabino Díaz, del Valle de Carranza ubicado en el confín occidental de Bizkaia; José Zufiaurre sobre la localidad de Beasain que se encuentra en el Goiherri guipuzcoano y Juan Cruz Labeaga sobre la villa de Sangüesa emplazada en el límite oriental de Navarra.

Dentro de este tema José María Satrustegi ofrece un documentado ensayo acerca de la crisis de una cultura en la que vida y muerte eran valoradas en el contexto de la armonía del hombre con la naturaleza.

Michel Duvert y Arnaud Aguergaray aportan un estudio sobre la organización del espacio de vida en los territorios de Baja Navarra y Zuberoa. Analizan la forma en que sus habitantes han tratado de compaginar los espacios libres, los terrenos comunales y los cercados y la proyección de estos conceptos incluso en la práctica de ciertos juegos.

Los mismos autores aportan dos nuevas variantes de «juegos de pastores», recogidos en Ascain y Musculdy, que guardan relación con un juego descrito por ellos en tres entregas sucesivas publicadas en este Anuario (vols. 35, 36 y 37).

Juan Garmendia Larrañaga presenta algunos aspectos relativos a la vida rural en la localidad de Urkizu (Tolosa).

El contenido del volumen se cierra, tal como se ha enunciado anteriormente, con una reseña de Gurutzi Arregi sobre el plan general del Atlas Etnográfico de Vasconia, una síntesis del contenido de los dos tomos del mismo publicados hasta la fecha y la exposición de la situación actual y perspectivas de las investigaciones y trabajos que se están llevando a cabo, que serán las nuevas aportaciones al conjunto de la obra del citado Atlas.

Tal y como se desprende del sumario, la contribución nuclear de este número gira en torno al rito de paso de la muerte. Siguiendo la orientación que mueve al *Anuario*, hemos pretendido tomar el pulso al modo de pensar, de sentir y de actuar de la gente, incorporando bibliografía en su caso, aportando datos, hechos y materiales en torno al transcendental tema de la muerte, cuyos ritos y creencias tienen honda raigambre en Euskalerria.

De esta forma esperamos haber respondido al designio que orientó siempre el método de trabajo de D. José Miguel y que ha marcado la trayectoria de los equipos por él fundados, es decir, la «rebusca de hechos, el trabajo sobre el terreno, el conocimiento del contorno al que nos hallamos estrechamente ligados». Confío en que el contenido que ofrece este volumen ayude a progresar por este camino.

izatea. Eusko-Folklore Urtekariaren datozen urteotako aleak mugimendu honen islada izan beharko dute. Hala espero dugu».[1]

Barandiaranen egitasmo etnografiko berriztatu honen geroko garapena eta berak sortutako Etniker Taldeek egindako lana Gurutzi Arregik, ale honetantxe bertan, *Atlas Etnográfico de Vasconia* izenburuaz aurkezten duen lanean batzen dira.

1991n zehar Euskalerria Etniker Taldeek heriotzaren inguruko ikerlanak landu zituzten «aldatze ohikuneak» gaiaren barruan. Kanpo-inkesta hau Euskal Herriko 76 herritan egin zén Barandiaranek Etniker egitasmorako idatzi eta argitaratu zuen «*Etnografizko Galdeketa Batetarako Gidaliburua*» izenburua zuen galdera-zerrenda orokorrari jarraituz.

Ale honetako hasierako orrialdeetan lau txosten etnografiko biltzen dira, hauek ikergai izan den eremuko beste hainbeste herri eta lurraldetan egindako inkesten emaitza izanik. José Antonio González y Salazarrek Arabako mendialdean dagoen Bernedoko datuak batu ditu; Miguel Sabino Díazek, Bizkaiko mendebaldeko mugan dagoen Karrantzako haranaren berri ematen dutenak; José Zufiaurrek, Gipuzkoako Goiherrin dagoen Beasaini buruzkoak eta Juan Cruz Labeagak, Nafarroako ekialdeko mugako Zangotzari dagozkionak.

Gai honi loturik, jarraian, José María Satrustegik bizitza eta heriotza gizakia eta naturaren arteko armoniaren kontestuaren barruan baloratzen ziren kulturaren krisiari buruzko saio landua eskaintzen du.

Michel Duvert eta Arnaud Aguergarayk Baxe Nafarroako eta Zuberoako lurraldeetan bizilekuak antolatzeko zuten moduaz egindako azterlana aurkezten digute. Hango espazio zabalak, herri-lurrak eta esparruak aldi berean mantentzeko bertako biztanleek izan duten modua eta kontzeptu hauek zenbait jokotan izan duten eragina aztertzen dute.

Egile hauek, gainera, «artzaien jokoen» bi aldaera berri ere eskaintzen dizkigute, Azkaine eta Muskildin bildutakoak, Urtekari honetan bata bestearen ondorengo hiru aletan (35, 36 eta 37. aleak) zatika deskribatutako joko batekin lotura estua dutenak.

Juan Garmendia Larrañagak Urkizu (Tolosa) herriko baserri giroko bizimoduarekin zerikusia duten zenbait daturen berri ematen digu.

Ale honen amaieran, gorago esan dugunez, Euskal Herriko Atlas Etnografikoa dela-eta Gurutzi Arregik egindako aipamen bat agertzen da, orain arte argitara eman diren bi tomoen edukiei buruzko laburpen batez, gaur egun jorratzen ari diren ikerketen berri emanez eta lanak zertan diren jakinaraziz, Atlas horren obrarako aportazio berriak hauetxek izango baitira.

Laburpenari begiratuz ikusten denez, ale honetako gai nagusia heriotzaren inguruko ohikunea da. Urtekariak orain arte erakutsi duen ildoari eutsiz, jendeak pentsatu, sentitu eta jokatzeko duen modua bildu nahi izan dugu, inoizkotan bibliografia ere aipatuz, heriotzaren inguruko datuak, gertakizunak eta materialeak jasoz, Euskalerrian heriotzari buruzko erritu eta sineskeriek sustraiak ondo errotuak baitituzte.

Era honetara, On Joxemielek lanerako beti zehaztu izan zuen metodoa gorde dugulakoan gaude, berak eraturiko lantalde guztien ezaugarri izan dena, hau da «gertakariak arakatzea, lana tokian bertan egitea, lotura estua dugun inguru horren ezagutza sakona izatea». Ale honen edukia, beraz, ekin horretan aurrera egiteko lagungarri izango delakoan nago.

---

[1] «Trabajos del 'Laboratorio de Etnología del Pueblo Vasco'. Durante los años 1967 y 1968» in *Anuario de Eusko-Folklore*. Tomo XXII (1967-1968), p. 7.